

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO KUADRILLA

#### **Behin betiko onartzea Sobrongo bide ferrataren funtzionamendu eta erabileraren arautegiari buruzko ordenantza**

Kuadrillako Batzarrak, 2016ko martxoaren 16ko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Sobrongo bide ferrataren funtzionamendu eta erabileraren arautegiari buruzko ordenantzari. Aldaketa horri buruzko iragarkia (37 zk.) 2016ko apirilaren 4an argitaratu zen ALHAOn, eta jendaurrean egon zen bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da.

Beraz, 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako (41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena), osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin.

Rivabellosa, 2016ko maiatzaren 11

*Lehendakaria*

*EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO GONZÁLEZ*

#### **Sobrongo bide ferrataren funtzionamendu eta erabileraren arautegiari buruzko ordenantza**

Zioen azalpena

Arautegi honen xedea da Sobrongo udalerrian hedatzen hasi berri den jarduera babestea, hala nola, bide ferratak.

Bide ferrata bat da bide bertikal edo horizontala, zenbait materialez hornitua: iltzeak, grapak, heldulekuak, eskudela, zubi eskekiak egiteko kateak edo tirolinak. Horiei esker, mendian ibiltzeko zaletasuna dutenak edo eskaltzen ohituta ez daudenak segurtasunez irits daitezke sartzen zailak diren guneetara.

#### **Lehenengoa. Xedea**

Ordenantza honen helburua da arautzea Sobrongo Valposada gailur lerroko bide ferrataren – Sobrongo Baños de la Villa urbanizaziotik eta antzinako Blanco hotelaren inguruan funtzionamendua eta erabilera.

Dauden ibilbideen plano Añanako Kuadrillaren turismoko web orriaren bidez eskuratu ahal izango da. Planoa eguneraturik egongo da eta aurrerantzean egon daitezkeen aldaketak sartuko dira.

#### **Bigarrena. Kudeaketa**

Sobrongo bide ferrata Añanako Kuadrillak sustatzen duen instalazio bat da. Abian jartzen denetik aurrera, erabiltzaileek euren erantzukizupean erabili ahal izango dute bide hori, honelako instalazioak erabiltzeko arau orokorrei, arautegi honetako segurtasun arauari eta horretarako gaituko den web orrian argitaratutako informazioari jarraituta.

**Hirugarrena. Ustiaketa**

Añanako Kuadrillak lehia librean uzten die enpresei Sobrongo bide ferrataren ustiaketa.

**Laugarrena. Instalazioaren funtzionamendua**

Nahiz eta bide ferrata erabiltzea libre egon nahi duen ororentzat, harreragune bat egongo da ondorengo hauei buruzko informazioa emateko: irekitzeko ordutegia, iristeko guneak, zailtasun maila, erabilerarako gomendioak eta debekuak. Era berean, gune horretan behar den materiala alokatu ahal izango da, bai eta gidari zerbitzu bat kontratatu ere, horrelaxe eskatzen duten trebatugabeentzat. Harreragunea Sobrongo abentura zentroa izango da.

**Bosgarrena. Bide ferratara iristeko guneak**

Sobrongo bide ferratara iristeko hiru gune hartu dira kontuan. Hona hemen horien UTM koordenatuak:

1. 30T 0492887 4734345 – 539 m.
2. 30T 0492882 4734389 – 564 m.
3. 30T 0492883 4734602 – 607 m.

Debekatuta dago ibilbideko beste edozein gunetatik iristea.

**Seigarrena. Erabiltzaileentzako erabilera eta segurtasun arauak**

Erabiltzaile guztientzat libre eta doakoa da bide ferrata erabiltzea.

Bide ferratara gidariarekin edo gidaririk gabe iris daiteke.

Jarduera egiten duten pertsona guztiak nahitaezko materiala erabili behar dute (kaskoa, arnesa, zinta energia-xurgagatzaileak finkatze txikota eta mosketoiak), euren erantzukizunpean.

Añanako Kuadrillak ez du inolako erantzukizunik hartzen erabiltzaileek segurtasun neurri hau edo besteren batzuk ez betetzearen gainean.

**Zazpigarrena. Erakunde sustatzaileak dituen eginkizunak mantentze eta onik zaintze lanetan**

Erantzukizun eta istripuko aseguru poliza izan.

Añanako Kuadrillaren turismoko web orriaren mantentze eta eguneratze lanak egin.

Behar diren mantentze lanak egin instalazioa behar bezalako egoeran egoteko. Lan horien barruan egongo dira, gutxienez, ikusizko kontrola egitea bandalismo ekintzen, erabilera handiaren edo egoera meteorologikoaren ondorioz izan daitezkeen ageriko arriskuak antzemateko.

Ekipoen segurtasun mailari eta ahalmenei eusteko prebentziozko neurriak egin. Neurri horiek ondorengo hauek izan behar dituzte:

- a) Kablearen, euskarri puntuen, kable-euskailuaren eta antzadillaren egoera orokorra.
- b) Seinaleen egoera orokorra.
- c) Ibilbidearen, beheranzko bidezidorraren ... egoera orokorra.

Ibilbideko edozein elementu hondatuta dagoela ikusten bada, konpondu egin behar da. Konponketa horiek Mantentze Lanen Erregistroan jasoko dira.

Urtero, ondorengo mantentze eta onik zaintze lan hauek egingo dira, teknikari eskudunak egindako jardueraren alde aurreko komunikazio memorian jasotakoari jarraituz.

a) Kontrol funtzional bat egingo da ekipoen egonkortasuna egiaztatzeko, eta bereziki, ohiko edo ez-ohiko higaduraren seinaleak aurkitzeko. Horren barruan egongo da ondorengo hauek berrikustea: altzairuzko kablea, euskarriak, kable-euskailuak, antzadilla. Horiez gain, eskaileren, seinaleen eta garbiketaren egoera orokorra ere berrikusiko da.

b) Kontrol nagusi bat egingo da, batetik, ekipoen, zimenduen eta gainazalen segurtasun orokorraren maila egiaztatzeko (eguraldiaren eraginak, narriadura edo korrosio probak ... ), eta, bestetik, segurtasun mailan izan daitezkeen aldaketak egiaztatzeko. Kontrol hori kanpoko enpresa independente eta aditu batek egingo du.

#### **Zortzigarrena. Segurtasunerako eta erabilerarako gomendioak**

Gidari zerbitzu bat kontratatu gabe jarduera egiten duten pertsonentzat.

Erabiltzailea jarduerak duen arriskuaz jakitun egongo da eta uneoro zuhurtziaz eta erantzukizunez arituko da. Informazioa, prestakuntza eta arreta nahitaezko ardatzak dira jarduera behar bezala garatzeko.

Nahitaezkoa da honakoak erabiltzea: kaskoa, bide ferratarako arnes berezia eta zinta energia-xurgagatzailea mosketoi homologatuekin. Gainera, gomendatzen da mendiko botak eta arropa eroso erabiltzea eta ura eta janaria eramatea.

Ez da segurtasun kableko tarte batean aseguratuta behar, baldin eta beste pertsona bat bertan aseguratuta badago. Zain egon behar da pertsona hori hurrengo tartera heldu arte.

Kontuz eskalatu eta oinez ibili behar da, harriak erortzea saihesteko moduan, beste pertsona batzuk egon baitaitezke ibilbide hori egiten. Abisatu egin behar da ustekabeen harri bat botatzen denean.

Ez lasterka ibili eta ez inor aurreratzen ibili jarduera egiten ari zaren bitartean.

Ez da ibilbidea utzi behar beste gune batzuetatik aurrera egiteko, horretarako prestatuta daudenean izan ezik (ihesbideak).

Uneoro errespetatuko da bide ferrataren ingurua.

Instalazio guztiak errespetatuko dira.

Uneoro beteko da argibide tauletan adierazitakoa.

Ez zaborrik bota, garbi eduki ingurua.

Ez oihurik egin

Errespetatu inguruko flora eta fauna

Gomendatzen da zorabioak edo bihotzeko arazoak dituzten pertsonen jarduera ez egitea.

Gomendatzen da 10 urtetik beherakoek bide ferratako lehenengo zatian jarduera ez egitea eta 14 urtetik beherakoek bigarren zatian. Adingabe guztiak legezke tutore batekin lagunduta joan behar dute.

Gidaririk gabe jarduera egiten duten guztiak euren erantzukizunpean egiten dute, eta uneoro segurtasun arauak bete behar dituzte.

Ibilbidea pertsona adituekin batera egitea.

Beti jakin behar da erabilera eta segurtasun gomendioak zeintzuk diren eta horiek beteko dira.

Uneoro beteko da gidariak esandakoa (jarduera gidariarekin egiten denean)

Kirol egileek beren egoera fisikoaren arabera ibilbidea hautatu behar dute.

Dauden zailtasun mailaren arabera mugak errespetatu behar dira.

Jarduera egiten den bitartean atseden hartu behar da aldian behin.

Debaturik gaez bide ferratara sartzea.

Irten baino lehen, eguraldiaren iragarpenak kontsultatu behar dira.

Ibilbidea hasi eta ekaitz elektrikoa eginez gero:

Urrundu mendi tontor eta ertzetatik

Ez erabili gailu elektrikorik.

Urrundu metalezko piezetatik, baina jarraitu aseguratuta balizko eroriko bat saihesteko.

Gorde gutxienez 3 metroko tartea pertsonen artean

Alendu zorutik eta hormatik (erabili motxila edo soka) eta bola formako gorputz jarrera izan.

Kanpoko enpresetat

Natura ingurunean aisiako eta astialdiko jarduerak egitea helburu duten enpresek jarduera doan egin dezakete bide ferratan, euren erantzukizunpean. Horretarako, gidatze lanak egin eta behar den segurtasun materiala eskain dezakete, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Zorrotz betetzea via ferraten araudia.

2. Erantzun zibileko eta istripuetako asegurua indarrean izatea eta aseguru hori arriskuak babesteko askietsia izatea.

3. Erabiltzen eta alokatzen diren diren banakako babes ekipoen mantenimendua egitea.

Banakako babes elementuren elementuren batean (kaskoa, arnesa, zinta energia-xurgagatzailea mosketoiekin) kalteren edo matxuraren bat egonez gero, edo agente kimikoek higituta edo kutsatuta egonez gero, horren orde bestea jarriko da.

Eroriko bortitza izanez gero, banakako babes elementu guztiak kendu egingo dira eta horien orde bestea batzuk jarri, nahiz eta agerian ez izan inolako aldaketarik edo kalterik.

Banakako babes elementuren batek haustura, korrosio edo beste kalteren baten zantzuak baditu, aldatu egingo da.

4. Erabiltzaile guztiak behar bezala aholkatzea Funtzionamendu eta Erabilpen Arautegi honetan eta horretarako egiten den web orrian adierazitako jarraibideak betetzeari buruz.

#### Azken xedapena

Behin betiko onarpena jasotakoan, ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.